

## SEGURAKO UDALEAN ETA UDALERRIAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ETA NORMALIZAZIOA BERMATZEKO UDAL-ORDENANTZAREN ALDAKETA PROPOSAMENA (2023ko uztaila):

Segurako Udalean eta Udalerrian Euskararen Erabilera Sustatzeko eta Normalizazioa Bermatzeko Udal-Ordenantza Segurako Udalean 2009ko uztailaren 9an onartu zen eta 2018ko apirilaren 12an aldaketa bat izan zuen bi artikuluetan: 13. artikuluan (Unibertsitateetako udako euskarazko ikastaroak) eta 14. Artikuluan (Euskalduntzeko eta euskaraz alfabetatzeko ikastaroak).

Azken artikulua hau berriro ere aldatzeko proposamena dago eta arrazoi nagusiak ondorengoak dira:

Lehena, HABEren (euskalduntze-gaiak eramaten dituen Jaurlaritzaren erakundea) eta Segurako Udalaren dirulaguntzen artean sortzen den uztartze-arazoa konpontzea.

HABEk B2 mailara arteko ikasleei eta azterketa gainditu dutenei ikasturtearen amaieran ordaindutakoa bueltatzen die; lehen txanda ekainetik abuztura izango da, eta bigarren txanda irailetik urrira. Udalak, aldiz, dirulaguntza emango die eskaera egiten duten ikasleei eta dirulaguntza jasotzeko bete beharreko baldintzak egiaztatzen dutenei. Horrela bada, HABEtik dirulaguntza jasotzeko eskubidea dutenak lehenik handik jasoko dute, eta gainerako zatia edo ez dagokien kasuetan Segurako Udaletik.

Bigarrena, inor ez geratzea euskara ikasi gabe arrazoi ekonomikoengatik, horretarako beka sistema ezarriko genuke. Ikasturte hasieran matrikula ordaindu ezin duten ikasleei lagunduko die Segurako udalak, horretarako, ordenantza honetan jasoko diren baldintza batzuk bete beharko dituzte.

Horrela bada, euskalduntzeko eta euskaraz alfabetatzeko ikastaroetan jasoko diren aldaketa nagusiak izango dira:

- **Baldintzak.** Asistentzia eta aprobetxamendua dira baldintzak, ez mailak gainditzea.
- **Doakotasuna.** B2 mailara arte kostuaren % 100 estaltzea dirulaguntzek; C1 mailan ere bai, baina gehienezko kopuru apalagoarekin. Zergatik aldea? B2 da erabiltzaile independentearen maila, euskaraz aritzeko oinarritzotzat har daitekeena; C1 maila, aldiz, hedatuagoa da —EGArekin eraginagatik—, hor jar daiteke hiztun gaituaren maila, eta egokia da udalek hori % 100 finantzatzea, nahiz eta ez jarri B2aren parean erabat. C2an, berriz, aldatu egiten da egoera, batik bat administraziorako titulazioarekin lotua baitago; kasu horretan ere, egokia da udalak bultzatzea, hein handian lagunduz, nahiz ez erabat.
- **Garaia.** Planteamendua da dirulaguntza hauek ikasturtea amaitu ondoren ematea (aurrez beka egongo liriteke, beharra dutenez), behin baldintzak betetzen direla egiaztatuta, edota, Udalak hileroko kuota bat kobratzea ikasturte osoan zehar eta ikasturte amaieran dirulaguntza eskaera egitea lehenik HABEn dagokienean eta ondoren Udaletxean.

Indarrean dagoen legediak dioenaren arabera, adierazitako ordenantzaren aldaketa horrela geratuko litzateke:

#### **14. artikulua. Euskalduntzeko eta euskaraz alfabetatzeko ikastaroak.**

Euskara ikasteko, euskaraz alfabetatzeko, C1 maila edo EGA ateratzeko, C2 maila, edo euskararen jakintzan sakontzeko ikastaroek jasoko dituzte laguntzak. Ikastaro horiek HABEK homologatutako edozein euskaltegi emandakoak izango dira.

#### **Dirulaguntzen zenbatekoa:**

1. Honako irizpide hauek erabiliko dira dirulaguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoari erreparatuz:

- A1, A2, B1, B2 mailak: kostuaren % 100eko dirulaguntza, 600 euroko gehienezko mugarekin.
- C1 maila: dirulaguntza 500 euro gehienezko mugarekin.
- C2 maila: dirulaguntza 400 euroko gehienezko mugarekin.

Dirulaguntzak eman ahal izateko ezinbestekoa izango da haiek emateko erabakitzen denean kreditu egoki eta nahikoa egotea Segurako Udalaren aurrekontuetan, horren baitan diru kantitateek aldaketak izan ditzakete.

2. HABEko dirulaguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituzten ikasleek, lehenik han eskatu beharko dute dirulaguntza, ebazpena jaso ondoren ezezkoa balitz eta Segurako Udaletxean dirulaguntza jasotzeko baldintzak bete ezker, Segurako Udaletxean eskatu ahal izango dute.

3. Dirulaguntzen zenbatekoa ezingo da inoiz izan ikastaroaren edo jardueraren kostua baino handiagoa.

4. Bekak (ikasturte hasieran) eskatzeko aukera izango dute ondorengo ezaugarriak betetzen dituztenek:

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzea.
- Errenta aitortpena egitetik salbuetsita egotea.
- Udaleko Gizarte Zerbitzuen txosten batek eskatzailearen egoera zaurgarria baieztatzea.

#### **Dirulaguntza jasotzeko bete beharreko baldintzak:**

- Seguran erroldatua egotea.
- Gutxienez %80 asistentzia-maila izatea. Asistentzia zenbatzean, ez dira hutsegite gisa hartuko honako kasu hauek:
  - Lanagatik (enpresaren ziurtagiria aurkeztu beharko du)
  - Gaixotasuna (mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko du)
  - Haurdunaldiagatik atsedena behar izatea (mediku-ziurtagiria aurkeztu beharko du)
- Dirulaguntzak jasotzeko inolako debekurik ez izatea.
- Beste nonbaitetik dirulaguntza jaso ezker, agiria aurkeztu beharko da eta Segurako Udaletik diferentzia jasotzeko eskubidea izango du.

### **Dirulaguntza eskaera aurkezteko bete beharreko dokumentazioa eta epea:**

Eskatzaile bakoitzak eskaera bakarra egin ahalko du eta ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- Eskabide inprimakia, eredu normalizatuaren arabera behar bezala beteta. Segurako udaleko kultura sailean eskuratuko da edo [www.segura.eus](http://www.segura.eus) atarian.
- NANaren fotokopia
- Euskaltegiaren ziurtagiria, ikasturteari buruzko informazio honekin:
  - Eskatzailea zein mailatan hasi zen eta zein maila egiaztatu duen.
  - Asistentzia zenbatekoa izan den, ehunekotan.
  - Ikasleak zer zenbateko ordaindu duen ikastaroagatik.
  - Ikaslearen aprobetxamendua nolakoa izan den.
- Kontu korrontearen titulartasun-ziurtagiria.
- Zinpeko aitorpena, diru-sarrerak jaso dituela eta zenbatekoa, edo jaso ez dituela jasoko duena.
- Dirulaguntzak ikasturtea amaitzean eskatuko dira eta aurretik esan bezala HABEtik jasotzeko aukera dutenek lehenik han eskatu beharko dute. Epea azaroaren 30 artekoa izango da.
- Beka eskaeren kasuan, matrikula ordaintzeko arazoak dituztenek eta aurretik aipaturiko agiriak aurkeztuz gero, ikasturte hasieran eskatuko dute eta ikasturtea amaitzean dirulaguntza jasotzeko dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

### **Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea:**

- Eskaeran edo horrekin batera doan dokumentazioan ez badira ageri identifikazio datuak, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari hamar eguneko epea emango zaio akats horiek zuzentzeko, urriaren 1eko 39/2015 legearen 68. Artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Epe horretan akatsak zuzendu ezean, uste izango da eskatzaileak uko egin diola, eta artxibatu egingo da, beste tramiterik gabe.
- Udalak beharrezko irizten dion informazio osagarria eskatu ahal izango die eskatzaileei eskabidean adierazitakoa egia dela ziurtatzeko.

### **Tramitazioak prozedura hau jarraituko du:**

- Prozeduraren instrukzioa Kultura sailari dagokio.
- Kultura sailak aztertuko ditu eskabideak, eta haiek baloratzeko txostena egingo du. Proposamen horretan zehaztuko du egindako ebaluazioaren emaitza, eta organo eskudunari helaraziko dio, onar dezan.
- Alkateak izango du oinarri hauetan jasotako dirulaguntza ematea ebazteko eskumena.
- Alkate Dekretua egin ondorengo hilabetean egingo da dirulaguntzaren ordainketa interesdunak emandako kontu korrontera banku-transferentzia eginez.
- Beka eskaeren kasuan, ikastaroaren kostuaren zenbatekoaren %90, erabakia hartu eta 15 eguneko epean ordainduko da. %10 beka lagundutako jarduera amaitzean eta onuradunak justifikatu duenean eskaturiko dokumentazioa.

### **Dirulaguntzak edo beka itzultzea:**

1. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 36. eta 37. artikuluetan aurreikusitako kasuetan, bidezkoa izango da jasotako zenbatekoak itzultzea eta dirulaguntza ordaintzen denetik itzultzea bidezkoa dela erabakitzen den egunera arteko berandutze-interesa eskatzea.

2. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen II. tituluko II. kapituluan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduaren III. tituluko II. kapituluan ezarritako xedapenek arautuko dute dirulaguntzak itzultzeko prozedura.

3. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.n) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, honako irizpide hauek zehazten dira dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak ez betetzeak mailakatzeko, kasu bakoitzean itzuli beharreko ehunekoekin:

- Baldintzak faltsutuz edo ezkutatuz lortzea: %100
- Bertaratzeko edo ordaintzeko betebeharra ez betetzea: %100